

**BITARTEKOTASUNEN ESKAINTZA – EMERGENTZIETAKO FAK.ESP.MEDIKUA- ETXEKO
OSPITALIZAZIOKO FAK.ESP.MEDIKUA ETA OSPITALE LARRIALDIETAKO
FAK.ESP.MEDIKOA – 2021EKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK**

Bitartekotasunen eskaintza bat egingo da 2022ko abenduaren 1ean eta posta elektronikoa erabiliko da **2021eko kontratazio-zerrendetan** dauden eta lanerako prest dauden pertsonekin harremanetan jartzeko hurrengo kategorietan:

- **Zainketa Aringarrien FEM**
- **Anatomia Patologikoko FEM**
- **Anestesiologiako eta Bizkorketako FEM**
- **Digestio Aparatuko FEM**
- **Kirurgia Orokorreko eta Digestio Aparatuko FEM**
- **Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko FEM**
- **Dermatologia Mediko Kirurgikoo eta Benereologiako FEM**
- **Endokrinologiako eta Nutrizioko FEM**
- **Hematologiako eta Hemoterapiako FEM**
- **Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM**
- **Medikuntza Intentsiboko FEM**
- **Barne Medikuntzako FEM**
- **Pneumologiako FEM**
- **Neurologiako FEM**
- **Obstetriziako eta Ginekologiako FEM**
- **Ospitale Pediatriko FEM**
- **Psikiatriako FEM**
- **Haur Psikiatriako FEM**
- **Erreumatologiako FEM**
- **Ksu-ko FEM**

Prozedura horrek Erabaki honi jarraitzen dio: *2021eko uztailaren 21eko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko dena.*

Eskainitako izendapenak

Bitarteko izendapenak eskainiko dira.

Nori eskainiko zaion

Izendapen luzeen kontratazioko zerrendan zaudeten eta lanerako prest zaudeten pertsona guztiek nahi dituzuen izendapenak aukeratu ahal izango dituzue, eta hautaketa horretan eskainitako lanpostuak zein lehentasun-ordenaren arabera aukeratu dituzuen adierazi beharko duzue. Aipatu beharra dago, eskaintza hau 2021eko behin betiko kontratazio-zerrendak argitaratu ondoren egiten den lehenengoa izanik, berez, zerrendako pertsona guztiak zaudetela lanerako prest.

Era berean, 2021eko kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera egin duten baina oraindik zerrenda horietan sartuta ez dauden pertsoneri ere bidaliko diegu eskaintza hau. Esleipenatarako hurrenkera *Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 20. artikuluan ezarritakoa da.*

Zuk aukeratutako izendapen bat esleitzen bazaizu eta ez baduzu onartzen, ezarri beharreko zigorra aplikatuko zaizu, 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Destino-aukeraketa

- Honi erantsita doan formularioan, eskainitako izendapen guztiak jasota daude.
- Hautagai gisa izena emanda zauden zerbitzu-erakundeetan **bakarrik** aukeratu ahal izango dituzu destinoak.
- **Era berean, hautagai guztiak aukeratu ahal izango dituzte hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-data iraungita duten lanpostuak, nahiz eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez izan.** Kasu horietan, esleitzeko lehentasuna “Destinoa esleitzea” atalean ezarritakoa izango da.
- **Bete nahi dituzuen destinoak soilik aukeratu behar dituzue (ezin izango diozue uko egin esleitutako destinoari).** Hautagaiak ez ditu nahitaez aukeratu behar izena emanda dagoen zerbitzu-erakundeko edo zerbitzu-erakundeetako destino guztiak, ofiziozko esleipena egiten zaion zein ez (aurrerago azaltzen da hori).

Epea

Formularioa bete eta gero, helbide elektronikoa honetara bidali beharko duzue: 2021lp-ic@osakidetza.eus, 2022ko abenduaren 12ko 14:00ak baino lehen.

Destinoa esleitzea

Izendapenak automatikoki esleituko dira zerrenda luzeen puntuazio-ordenaren arabera. Dagokion zerrendan lanerako prest egonda ere deialdian ateratzen den lanpostua betetzeko eskabidea aurkezten ez duenari ez zaio zigorra ezarriko, jarraian arautzen den ofiziozko esleipenari kalterik egin gabe.

Izangaiak hautatu ez dituzten edo inori esleitu ez zaizkion izendapen-eskaintzak **ofizioz esleituko dira**, hauek kontuan izanda: zerrendako kideak hautatutako zerbitzu-erakundea, lanpostuen argitalpen-ordena, zerrendan duen lehentasun-ordena eta iraupen luzeko aldi baterako izendapenak hartzeko prest dagoen. Izangai batek ofiziozko esleipenari uko egiten badio eta ez badu justifikatzeko arrazoirik alegatu, **2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41.** artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion zigorra ezarriko zaio.

Ofiziozko esleipenak lehenengo eskaintzatik hasiko dira, izendapenak argitaratu ziren ordenaren arabera; beraz, hutsik geratu den lehen izendapena ofizioz esleituko zaio lanpostu zerbitzu-erakundearen izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehenengo izangaiari. Zerrenda hori agortuko balitz, barrutiko izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehenengo pertsonari esleituko litzaioke, eta horrela hurrenez hurren, izendapen guztiak esleitu arte.

Derrigortasun-data igarota duen euskara-eskakizuna daukan lanpostu bat aukeratu bada eskatutako hizkuntza-eskakizuna izan gabe, esleipenerako lehentasuna honako hau izango da:

1. – Eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten pertsonak (2. HE);
2. – Eskatutako hizkuntza-eskakizunaren aurrekoa (1. HE) duten pertsonak;
3. – Hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta ez duten pertsonak.

Izangaiei posta elektronikoz jakinaraziko zaie esleitutako destinoa, eta dagokien zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritza haiekin jarriko da harremanetan lanean hasteko eguna ezartzeko.

Destinoaren esleipena jakinarazten denean, ezin izango zaio uko egin. **Esleitutako destinoari uko egiteak zerrendatik kanpo geratzea ekarriko du**, kontratazio-zerrendak kudeatu eta prestatzeari **buruzko 2021eko uztailaren 21eko Erabakian adierazitako epeetarako**.

Lehen eskaintza horren ondoren izendapenik jasotzen ez duten pertsonen egoera

Eskaintza honetan parte hartu edo ez, edo ofiziozko izendapen bat esleitu ala ez, ofizioz jakinaraziko dizugu aurreko zerrendetan zein egoeratan zauden, baldin eta honako egoera hauetakoren batean bazaude:

- Aurreko kontratazio-zerrendetatik Osakidetzan lanpostu huts/bitartekotasun baten izendapena baduzu eta hura indarrean badago.
- Osakidetzan behin-behineko/ordezkapeneko izendapena baduzu, eta izendapen hori sei hilabetekoa edo gehiagokoa bada (luzapenak barne) eta indarrean badago.
- Aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratu bat indarrean baduzu Osakidetzan.

Langileen artean ahalik eta zabalkunde handiena emateko, posta elektronikoa bidaltzeaz gain, kontratazioko webgunean ohar bat argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 1a